

Ametsak

Ametsak dira gure desiren sorburu, gure nahien abiapuntu. Ametsek ez dute mugarik eta berauen bitartez bilatzen dugu zoriontasuna. Izan ere, ametsek ilusioa sortzen dute eta gure buruari jartzen dizkiogun helburu eta erronkei bide ematen diete. Ametsak egikaritzeko nahi horri segika motibatzen gara eta grin horrek pizten du, hain zuzen, bizitzaz gozatzeko nahi.

Denok amesten dugu eta denok ditugu ametsak. Umeak garenean esaterako, etorkizunean izan nahi dugunaren gainean amesten dugu: futbolaria, telebistako aurkezlea, astronauta edo auskalo zer. Badaude bestelako ametsak ere: ezkontzea, familia bat osatzea, gure sinismenengatik borrokatzea ... Eta, baita, egunerokotasunari loturiko amets txikiagoak ere: Hala nola, aspaldiko lagunekin elkartu eta garai bateko kontuak gogoraraztea edo asteburuan mendira joatea.

Halaber, lotan gaudenean ere amestu egiten dugu askotan horretaz ohartzen ez garen arren. Alegia, esnatzen garenean ez gara lotan ginen bitartean izandako ametsez gogoratzen. Beste batzuetan ordea, bai, nahiz eta nahiago genukeen amestutakoaz ez akordatu. Amets guztiak ez baitira gozoak inondik, badira amesgaiztoak ere.

Jonek futbolari izan nahi zuen txikitán. Hori zen bere ametsa. Eskolan zegoen bitartean orduari begiratzen zion etengabe jolas garaiko ordua noiz iritsiko zain, orduantxe izaten baitzuen baloiari eguneko lehen ostikoak emateko aukera. Arratsaldean txirrinak jotakoan ogitartekoa jan eta ziztu batean joaten zen entrenatzera edo parkera lagunekin jolastera. Eta etxera iritsitakoan albistegietako kirol tarteaz ezin galdu, noski. Futbolari guztiak ezagutzen zituen, haien ziren bere idoloak eta haien iritsitako tokira heldu nahi zuen. Hori zen Jonen ametsa, ilusio horri segika zoriontsu zen.

Urteak aurrera egin ahala, futbolari izateko ametsaren sugarra itzaltzen joan zen pixkanaka. Izan ere, konturatu zen amets hori errealitate bihurtzea ezinezkoa zela. Finean, amets bat baino ez zela.

Amets horietatik esnatzean kolpea jasotzen da eta egoera makur horretatik berriz altxatzeko modua berriro ere amesten hastea da. Bada, horixe egin zuen Jonek. Kazetari izatea bilakatu zen bere amets berria. Ilusio hori jarraiki, batxilergoko ikasketak burutu ostean unibertsitatean kazetaritza ikastea erabaki zuen munduan gertatzen zenaren berri emateko nahiak harrapatuta.

Lizenziaturak iraundako lau urteetan kazetaritzarekiko zuen pasioa haziz joan zen. Gainerakoek sufritzen zuten lanekin berak gozatu egiten zuen. Ez zitzaion axola asteburuetan elkarritzak egitera joatea edo lekukotasunak bilatu behar izatea erreportaje bat aurrera ateratzeko. Gustoz egiten zuen lan hori guztia, hori baitzen bere ametsa betetzeko jarraitu beharreko bidea.

Teknologia berriak eskaintzen dituzten abantailak medio, blog batean unibertsitaterako egindako lanak eskegitzen hasi zen. Halaber, bere kabuz egindako bestelako artikulu eta bideo batzuk ere txertatzen zituen. Blogak harrera ona izan zuen eta irakasleek ere kazetari moduan etorkizun oparoa izan zezakeela esaten zioten.

Lizentziatura amaitutakoan lana bilatzeko momentua iritsi zitzaison, bere ametsa errealitye egiteko unea, hain zuzen. Jon bere curriculuma egin eta hedabide desberdinatara bidaltzen hasi zen. Ikasketak amaitu berritan ez zuen gauza handirik jartzeko baina bere bloga erreferente egoki bat zen bere lanen maila aztertzeko.

Astebete igaro zen, baita bi eta hiru ere, baina Jonek ez zuen inongo eskaintzarik jasotzen. Klaseko zenbait kiderekin hitz egin eta haien ere egoera berean zeudela jabetu zen. Denborak aurrera egiten jarraitzen zuen eta korapiloa ez zen askatzen. Hala, futbolari izateko ametsarekin gertatu moduan orduko ametsa ere amesgaizto bihurtzeko beldurra sartzen hasi zitzaison. Kazetari izatearen sugarra itzaltzen hasi zen.

Kazetaritza ikasketak duela urtebete amaitu zituen Jonek. Asteartea da. Gosaldu eta gero, egunero bezala bere korrea zabaldu du eta 3 mezu ezezagun topatu ditu. Hirurak irakurri eta hirurak dira lan eskaintzak. Ezin du sinetsi. Begiak igurtzi eta berriro begiratu dio ordenagailuari. Halaxe da, egia da, hiru lan eskaintza ditu. Urtebete osoan eskaintza bakar bat ere ez, eta, orain, hiru batera. Lehenengoa egunkari batetekoa da, bigarrengoa herri aldizkari bateko, eta, azkena, sortu berri den irrati bateko. Buruhauste itzela orain. Zein eskaintza aukeratu, nola asmatu. Izan ere, Joni gauzak kontatzea gustatzen zaio, bai idatziz, eta, baita, ahoz ere. Dena den, pozez txoratzen dago.

Bapatean alarmak jo du. Goizeko zortziak dira eta Jonek dentistarenera joan behar du bederatzietarako. Arestian aipatu moduan bi motatako ametsak daude: gure ilusioa pizten dutenak eta lo egiten dugun bitartean ditugunak. Jonentzat tamalez, izandako ametsa bigarren multzokoa da. Beraz, amets gozoa izanagatik amesgaizto bilakatu da segituan, errealityea ez da aldatu eta. Egoerak berdin dirau.

Kazetari izateko ametsaren kandela itzaltzear da. Jon amore ematen hasia da. Badirudi aspaldi galduztako ilusioa berreskuratzeko beste amets bat topatu beharko duela.

Astelehena da, goizeko bederatzia. Jon ordenagailura joan da gosaldu ostean. Beti bezala korrea ireki eta nobedaderik ez. Halere, interneten saltseatzen dabilela iragarki bat topatu du, lehiaketa bat da. Bi komunikatzaile behar dira Estatu Batuetako euskal diasporaren jaialdira joateko. Idazlan bat edo bideo bat aurkeztu behar dira eta bi hautatuak Boisera joan eta han gertatutakoaz blogari lanak egiteko aukera izango dute.

Jonek beste argi izpi bat topatu du iluntasunean. Kazetari izateko ametsa bukatzean dela amets beraren gainean amesten jarraitzeko heldulekua izan daiteke. Gazteek lana bilatzeko dituzten zaitasunen gaineko fikziozko idazlan bat egitea erabaki eta garai batean bezala, ilusioa berreskuratuta idazteari ekin dio, pasioz.

Idatzia amaitu eta enegarrenez gainbegiratu ostean bidali du eskaturiko lekura. Nekatuta dago eta goiz oheratu da. Ametsetan hasi da. Bere ordenagailuan mezu bat jaso du Boisera joateko hautatu dutela esanez. Azkenean lortu du bere helburua. Kazetari moduan duen balioa erakusteko aukera izango du eta ez du amets horretatik esnatu nahi. Amesten jarraitu nahi du.

Sueños

Los sueños son el origen de nuestros deseos, la fuente de nuestra motivación. Buscamos la felicidad basándonos en los sueños, los cuales no tienen límite. De hecho la ilusión se genera en base a los sueños y desde ese punto de partida nos ponemos objetivos y metas que tienen como fin hacer realidad esos sueños con tal de buscar la felicidad. En definitiva, es el afán de perseguir nuestros sueños lo que nos motiva y lo que genera las ganas de disfrutar de la vida.

Todos tenemos sueños y todos soñamos. Cuando somos niños por ejemplo, soñamos con nuestras futuras profesiones, pensamos sobre aquello que nos gustaría ser cuando seamos personas adultas: futbolista, actor, presentador de televisión o astronauta por ejemplo. También hay otro tipo de sueños: casarse, formar una familia, luchar por nuestras creencias... Por otra parte, cabe destacar sueños pequeños que tienen que ver con nuestro día a día como puede ser el ir al monte el fin de semana o quedar con viejos amigos para recordar tiempos pasados.

Se sueña despierto y se sueña cuando uno está dormido a pesar de que en muchas ocasiones no seamos conscientes de ello. Es decir, cuando nos despertamos no nos solemos acordar de aquello sobre lo que hemos estado soñando durante la noche. En otras ocasiones sin embargo, sí, a pesar de que quizás preferiríamos no hacerlo ya que no todos los sueños no son dulces. Las pesadillas suelen abundar haciendo de nuestro descanso o realidad un suplicio.

Jon quería ser futbolista cuando era pequeño. Ese era su sueño. Cuando estaba en el colegio miraba la hora incesantemente con el deseo de que llegara del recreo dado que era entonces cuando tenía la ocasión de dar las primeras patadas del día al balón. A la tarde, al término de las clases comía el bocadillo a toda prisa para ir a entrenar o a jugar con sus compañeros cuanto antes. Y cuando llegaba a casa la prioridad era ver la sección de deportes del telediario. Jon conocía a todos los futbolistas. Ellos eran sus ídolos y el quería llegar a donde ellos habían llegado. Ese era su deseo, su ilusión, y luchando por ello era feliz.

Los años fueron pasando y la llama de ese sueño se fue apagando poco a poco muy a su pesar. Jon se dio cuenta que convertirse en futbolista profesional era prácticamente imposible o simplemente un sueño.

Cuando llega la hora de despertar de ese tipo de sueños se pasan momentos complicados y se apodera la tristeza y la desilusión. Pero incluso en esas situaciones adversas la llave para el cambio está en volver a soñar. Y precisamente eso es lo que hizo Jon. Su nuevo sueño era ser periodista. Para perseguir esa ilusión se matriculó en la carrera de periodismo después de terminar el bachillerato. Le apasionaba poder contar aquello que estaba pasando en la sociedad en cada momento.

Durante los cuatro años que duró la carrera su pasión por el periodismo no hizo más que incrementar. Había quienes sufrían con los trabajos que les mandaban en la universidad. A Jon en cambio no le importaba en absoluto tener que pasarse el fin de semana haciendo entrevistas o reuniendo testimonios para realizar reportajes, es más,

disfrutaba con esas tareas. Jon tenía claro que ese era el camino que debía seguir para que su sueño se cumpliera y se convirtiera en realidad.

Aprovechándose de las facilidades que ofrecen las nuevas tecnologías empezó colgar en un blog los trabajos que realizaba en la universidad. Además, también subía artículos y videos que elaboraba por su cuenta. El blog tuvo una buena acogida y los profesores le auguraban un futuro prometedor como periodista.

Al terminar la licenciatura le llegó la hora de buscar trabajo, y por tanto, el momento de hacer realidad su sueño. Jon preparó su currículum y lo mando a diversos medios de comunicación. Bien es cierto que no tenía muchas cosas que poner, pero al mismo tiempo, su blog era un buen referente para dar cuenta de su nivel.

Paso una semana, dos y tres, pero Jon no recibía ninguna oferta. Dadas las circunstancias decidió hablar con varios de sus compañeros de clase y se dio cuenta de ellos también estaban en la misma situación. El tiempo pasada pero el nudo seguía sin deshacerse. Las cosas así, el temor de que este nuevo sueño se convirtiera también en pesadilla empezó a adentrarse en los pensamientos de Jon. La llama de ser periodista comenzó a apagarse.

Jon terminó la carrera de periodismo hace ya un año. Es martes. Después de desayunar ha abierto el correo como todos los días y para su sorpresa ha recibido tres emails de remitente desconocido. Jon empieza a leer los mensajes y no se lo puede creer, son ofertas de trabajo. Jon se frota los ojos y vuelve a mirar al ordenador. Efectivamente es verdad, ha recibido tres ofertas de trabajo en un mismo día después de pasarse todo un año sin recibir ninguna, esta atónito.

La primera oferta es de un periódico, la segunda de una revista popular y la tercera de una radio que se acaba de poner en marcha. Bendito quebradero de cabeza. De todas maneras no es una decisión sencilla. A Jon le gusta contar cosas, bien sea escribiendo o hablando, y no sabe qué hacer. Se pregunta a si mismo cual será la oferta idónea para seguir formándose.

De pronto suena la alarma. Son las ocho de la mañana y Jon tiene dentista a las nueve. Como hemos comentado anteriormente hay dos tipos de sueños: los que despiertan nuestra ilusión y los que tenemos mientras dormimos. Para desgracia de Jon el sueño que acaba de tener pertenece al segundo grupo. De pronto el sueño se convierte en pesadilla, ha pasado un día más y la realidad no ha cambiado.

El sueño de ser periodista está a punto de apagarse. Jon se empieza a dar por vencido. Parece obvio que para recobrar la ilusión que perdió hace ya un tiempo necesita abrazarse a otro sueño.

Es lunes, son las nueve de la mañana. Jon enciende el ordenador después de desayunar y mira el correo como todos los días, no hay novedades. Sin embargo, mientras está salseando por internet ha encontrado un anuncio que le ha llamado la atención, es un concurso. Se buscan dos comunicadores para ir a Estados Unidos a la fiesta de la diáspora vasca. Para presentarse hay que entregar un texto o un video y los dos elegidos irán a Boise a contar lo que allí suceda.

Jon ha encontrado un rayo de luz en medio de la oscuridad. En el momento en que el sueño de ser periodista estaba a punto de esfumarse ha encontrado la forma de seguir soñando para conseguir el mismo sueño. Ha decidido escribir un texto de ficción sobre las dificultades que tienen los jóvenes a la hora de encontrar trabajo. Jon ha vuelto a ilusionarse y ha empezado a escribir.

Una vez terminado el texto y después de revisarlo varias veces Jon lo envía a la dirección correspondiente. Jon está muy cansado y decide irse a la cama. Jon se duerme y comienza a soñar. Ha recibido un mensaje en su ordenador que dice que ha sido elegido para ir a Boise. Al final ha conseguido su objetivo. Va a tener la oportunidad de demostrar su valía como periodista y no se quiere despertar de ese sueño. Jon quiere seguir soñando.